

Esp. zk. SUBV_CON_COMPET/2023/5

DEIALDIA DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEAN EMATEKO, 2023an

GARAPENAREN ETA HERRITARTASUN GLOBALAREN ALDEKO HEZKUNTZA

PROIEKTUAK GAUZATZE ALDERA

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. (2006ko 21. NAO, otsailaren 17koan, argitaratua).**

Iruñeko Udalak, 2023ko aurrekontu luzatuan, 1.225.319 euroko zenbatekoa aurreikusi du hasiera batean Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programa gauatzeko, herrialde pobreenetako komunitate behartsuenei laguntze aldera.

II. Plan honetan (2022-2025) Udal Programaren helburua da Iruñeko herritarren elkartasuna bultzatzea, laguntzea eta garatzea, bereziki gure udalerrian aktiboak diren GGKEek ordezkatzan dutenena, horretarako tokiko lankidetzako ekintzak gauzatuz behar handiena duten Hegoaldeko herri eta komunitateekin.

Gainera, Iruñeko herritarrengandik hurbil gaudenez, eta haiekin konfiantza zein zuzeneko harremana dugunez, elkartasun eta lankidetzaren horiek gure gizartearen erantzukizuna eta ez laguntza asistentzial hutsa direla uler dadin lagundu nahi dugu, aintzat hartuta mundua gero eta globalizatuago dagoela eta elkarren mendekotasuna gero eta handiagoa dela.

Bestalde, nahi genuke gure herritarrek informazioa izatea eta jakitea zein diren egun eragiten diguten arazo globalak, eta modu aktiboan inplikatzeko horiek konpontzeko, hirian bertan keinu txikiak eginez, jakinik mundua aldatzeko behetik hasi behar dugula, zehatzenetik.

Bereziki, garapenerako lankidetzari eta Iruñeko Hegoaldeko begiradari berriz balioa ematen lagundu nahi genuke, aldaketa eta erronka globalen testuinguruan tresna eraldatzaile gisa, eta, horretarako, tokiko esparruaren abantaila konparatiboetan sakondu.

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emaila:	Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko zinegotzi ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko idazkaritza teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:



Deialdi honen xedea da Iruñeko lurralde-esparruan egin beharreko garapenaren eta herritartasun globalaren aldeko hezkuntza-proiektuak –biztanle orori zein talde jakin batzuei zuzenduak– beste hainbatekin batera finantzatzea.

Deialdi honen helburua da inguruko munduarekiko kontzientzia kritikoa bultzatuz, herritartasun aktiboa eta solidarioa sustatzea.

Proiektuak hiriko eremu zehatz batera edo sektore/gai batera bideratuko dira.

Deialdi honetarako, proiektuetan honako gai hauek jorratuko dira lehentasunez:

- Giza eskubideak sustatu eta defendatzea.
- Bidezko Merkataritza Kontsumo arduratsua. Ekonomia solidarioa.
- Generoa eta garapena.
- Migrazioak eta errefuxiatuak.
- Kultur-identitateen errespetua eta elkarbizitza.
- Ekologia, elikadura subiranotasuna, ingurumen-arazoak eta klima-aldaketa.

Deialdi honetara aurkezten ahalko dira honako modalitate hauetakoren bateko proiektuak:

* A modalitatea: Garapenaren eta Herritartasun Globalaren aldeko proiektu BERRIAK. Edozein kasutan proiektu horiek hurrengo bi urtetarako jarraitasun-programazioa izan beharko dute, urtebeteko fase independenteetan bereizita, B.3.2) klausularekin bat

* B MODALITATEA: Garapenaren eta Herritartasun Globalaren aldeko proiektuen JARRAIPENA. Aurreko ekitaldi batean deialdi honen bidez diruz lagundutako proiektuak izan beharko dute, eta 2023ko ekitaldi honetarako haien jarraipena edo garapena aurkeztu beharko da.

2. Deialdiaren helburua:

Gure hirian elkartasunaren kultura sustatzen laguntzea, lurraldean errotzea sustatzen duten edo intereseko sektore/gai bat lantzen duten ekintzen bidez, hiriko pertsonak eta erakundeak aldaketa-eragile izan daitezen, bai gure inguru hurbilean, bai mundu osoan.

3. Diruz laguntzen ahal diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

1) PROIEKTU GUZTIETARAKO BALDINTZA KOMUNAK:

a. Elkartasunezko harremanak sustatzen dituzten proiektuak izatea, aipatutako gaiekin loturiko edozein eremu edo sektoretan.

b. Proiektuak ez dira ekintza isolatuak izanen, baizik eta ezagutzarako, gogoetarako, prestakuntzarako eta ekintza eraldatzailerako prozesu zabalagoak, eta epe ertainean estrategia globala beharko dute, Hegoaldeko ikuspegia gure inguruneari eta B1 apartatuan proposatutako gaiei lotzeko.

c. Behar bezain zabal garatu beharko dute helburuen, emaitzen, jardueren eta proiektua gauzatzeko behar diren baliabideen berri ematen duen informazioa. Aipatu jarduerak irekiak eta ahal dela doan izanen dira.

d. Konpromiso solidarioko jarrerak sustatu beharko dituzte mundu globalizatuan dauden desparekotasun eta bidegabekeria sozialen aurrean. Horiez gain, kontzientzia kritiko bat eratzen lagundu beharko dute, gure bizimodua aztertu eta gure inguruan eraldaketak sustatuko dituen, parte hartzea eta ekintza sustatuta.

e. Hiriko eragile ezberdinen arteko sareko lana bultzatu beharko dute: GGKEak, irabazi-asmorik gabeko gizarte-entitateak, etab. Horregatik, dirulaguntza honetara aurkeztu ahal izateko betekizun bat izanen da proiektuan entitate batek baino gehiagok parte hartzea, gizarte-entitateen arteko aliantza, elkarlan edo



beste parte-hartze mota baten bidez, dela unean-unean, dela modu jarraian proiektu osoan zehar. Gainera, proiektuan aktiboki parte hartzen duen tokiko bazkide bat, gutxienez, izan beharko da aliatu gisa. Hori guztia X. eranskinarekin bat.

f. Entitate parte-hartzaile guztiek ezaguera zabala erakutsi behar dute proiektuaren eta hura gauzatzeko hautatutako eremuaren edo sektorearen gainean, bai eta proiektua behar bezala gauzatzeko behar diren material mota eta pertsona kopuruaren gainean ere.

g. Behar bezain zabal ematea proiektua gauzatzen parte hartzen duten erakunde ezberdinen helburuen eta lan eskarmentuaren berri, parte-hartze maila edozein dela ere.

h. Proiektuak identifikazio eta formulazio bat izatea, Marko Logikoaren Ikuspegian oinarrituta, edo, bestela, beste metodologia normalizatu batean, non argi eta garbi eta modu antolatuta batean zehaztuko baitira esku-hartzearen helburuak, espero diren emaitzak eta proiektua gauzatzeko behar diren jarduerak eta baliabideak.

j. Aintzat hartzea deialdi honen kargura diruz lagunduko den epea hamabi hilabetekoa izanen dela. Proiektuaren jarduerak 2023/09/01aren eta 2024/08/31ren artean egiten ahalko dira.

2) A MODALITATERAKO (proiektu berriak) BERARIAZKO BALDINTZAK:

a. Proiektuak epe ertain eta luzerako eraginak lortzeko diseinatuta egon beharko dira, eta, beraz, jarraitutasun-programazioa izan beharko dute hurrengo bi urteetarako (urte beteko fase independenteetan banaturik). Ildo horretan, eboluzio-proiektuak izanen dira (ezin izanen dira urteroko kopia gisa diseinatu hiru urteetan zehar): zehaztapen maila desberdina izanen dute esku-hartzearen urte bakoitzerako, eta urtero emaitzak ezberdinak izatea bilatuko da. Edozein kasutan, 2023-2024ko aldia ikasturteari dagokion proiektua xeheki azalduta aurkeztuko da, eta egin beharreko jarduketak bakoitza argi eta garbi garatu beharko da. Hurrengo bi urteetarako, eginen diren jarduketaren aurrerapen ahalik eta zehatzena egin beharko da.

b. Proiektuek esku hartzeko eremuaren edo sektorearen diagnostikoa / azterketa izan beharko dute. Entitateak halakorik badu, eranskin tekniko gisa aurkeztuko du; bestela, dirulaguntza eman eta gehienez ere 4 hilabeteko epean aurkeztu beharko du. Epe hori betetzen ez bada, dirua itzuli beharko da.

3) B MODALITATEKO PROIEKTUETARAKO (jarraitutasun-proiektuak) BERARIAZKO BALDINTZAK:

a. Entitatea jardunean egonen da 2023. urtean, 2023-2024ko ikasturteari dagozkion jarduketekin jarraitzeko proiektu bat eskatuko du, eta, hala badagokio, proiektuaren hasierako eskaeran jasotako aurreikuspenean egindako doikuntzak.

b. Aurreko ekitaldi batean deialdi honen bidez diruz lagundutako proiektua izan beharko du, eta 2023ko ekitaldi honetarako haien jarraipena edo garapena aurkeztu beharko da.

c. Entitate onuradunak dirulaguntza jaso duen deialdiko oinarrietan ezarritako justifikazio baldintzak egunean eduki beharko ditu.

4) DEIALDI HONEN XEDETIK KANPO GERATUKO DIRA:

- a. 3 urtera begira jarraitzeko proposamenik ez duten proiektuak.
- b. Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzako edo larrialdi humanitarioko beste proiektu batzuetarako dirua biltzea helburu duten sentsibilizazio-jarduerak.
- c. Entitate eskatzailearen barne-funtzionamenduak sortutako jarduerak: barne prestakuntzako jarduerak, aldian aldiko buletinen edo entitatearen ohiko jardueren hedabideen argitalpenak, entitatearen bilerak edo barne topaketak eta abar.



d. Genero, adina, etnia, ideologia, erlijio edo egoera sozialeko zioak direla-eta parte-hartzea eragozten duten jarduerak dituzten proiektuak.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 60.000 €
Gustizko zenbatekoaren 30.000 euro, A modalitateko proiektu batera bideratuko dira, eta 30.000 euro, B modalitateko proiektu batera.

Banakako gehienezko zenbatekoa 30.000 euro da.

* Oinarri hauetako H apartatuan ezarritako gutxieneko puntuazioa gainditu duten proiektuen artean honela banatuko dira dirulaguntzak:

- A modalitatea: gehieneko puntuazioa lortzen duena eskatutako kopuruaren % 100ean finantzatuko da, muga 30.000 € izanik.

- B modalitatea: - Jarraitasun-proiektua: gehieneko puntuazioa lortzen duena eskatutako kopuruaren % 100ean finantzatuko da, muga 30.000 € izanik.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 71/23930/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Entitate onuradun bakoitzari gehienez emanen zaion kopuruak ezin izanen du gainditu aurkeztutako guztizko aurrekontuaren % 90, eta gehienez ere 30.000 € jasoko ditu.

4. Hainbanatzeko aukera:

☐ BAI ☒ EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu:

5. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

Urteko arrunta:	60.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

a. Bere izaera juridikoarekin eta legearekin bat eratutako pertsona juridikoak izatea, eta Garapenaren aldeko Lankidetzako Agentzia Espainiarraren Garapenerako Gobernu Kanpoko Erregistroan izena emanda izatea eskabideak aurkezteko mugaegunean; halaber, dokumentazioa eguneratua izan beharko dute.

b. Entitate eskatzaileak aurretik egiaztatu beharko du eskarmentua daukala garapenaren aldeko



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuetan.

c. Iruñean edukitzea egoitza edo ordezkaritza iraunkorra. Nolanahi ere, deialdi honen onuradunak izan daitezke baldintza hau bete ez, baina beren jarduera gehiena Iruñean eta bertako herritarrekin garatzen duten entitateak. Horretarako, Iruñean azken bi urteetan jardun izana egiaztatu beharko dute.

d. Helburu sozialak beteko direla bermatzeko egitura edukitzea eta proposaturiko helburuak erdieste aldera behar diren eskarmentua eta jarduteko gaitasuna egiaztatu ahal izatea.

e. Sareko lanari dagokionez, proiektua gauzatzen laguntzen duten entitateek, unean-unean edo modu jarraituan, honako baldintza hauek bete beharko dituzte: irabazi-asmorik gabekoak izatea, entitate publikoak edo pribatuak izatea, nortasun juridikoa izan zein ez.

Berariaz honako hauek daude deialdi honetatik at:

- Irabazi-asmoa duten entitateak.
- Aurretik jasotako dirulaguntzen gaineko justifikazioen aurkezpena egunean ez duten entitateak.

Dirulaguntzaren izaera berezia dela eta, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

☒ BAI ☐ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

a. Proiektua gauzatzea eskabidean adierazitakoarekin bat; proiektuari hasiera eman beharko diote, gehienez ere, dirulaguntza jaso eta hilabeteko epean, salbu eta aparteko edo ezinbesteko inguruabarrek hala egitea galarazten badute, edonola ere, inguruabar horiek justifikatuta egon beharko dute eta dirulaguntza kudeatzen duen unitateak baimena eman beharko du.

b. Iruñeko Udalarari jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabar, betekizun eta baldintzetan gertatzen diren aldaketak oro.

c. Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari jakinaraztea eskatu edo jaso direla diruz lagundutako proiektua osorik edo zati batean finantzatu duten bestelako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, P) apartatuan jasotako dirulaguntzaren justifikazioaren aurretik.

d. Behar bezalako publizitatea egiteaz gain, jakitera emateko Iruñeko Udalak finantzatu duela proiektua, (E) apartatu honetan jasotako hedapen-neurri zehatzak hartu beharko dituzte eta Iruñeko Udalarekin elkarlanean jardun beharko dute proiektuaren garapenaren berri emateko.

e. Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari jakinaraztea proiektua garatzen den



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

bitartean GGKE eskatzailearen nortasun juridikoan izandako aldaketak: estatutu-aldaketak, entitatearen legezko ordezkariak aldatzea, etab.

f. Jasotako funtsek sortzen dituzten finantza-etekinak edo interesak erabiltzea bakarrik diruz lagundutako proiektuari edo jarduerari lotutako zuzeneko gastuak ordaintzeko.

g. Organo emailearen aurrean justifikatzea baldintzak eta betekizunak bete direla, diruz lagundutako jarduera egin dela eta dirulaguntza zertarako den eta helburu hori bete dela, horretarako aurkeztuta P) apartatuan adierazitako jarraipen- eta justifikazio-txostena.

h. Gordetzea jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak –agiri elektronikoak barne–, kontrolak- eta egiaztapen-jarduketan xede izaten ahal diren neurrian.

i. Jasotako funtsak itzultzea, hala deialdi honen Q) apartatuan nola Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean adierazitako gainerako kasuetan.

j. Gardentasun-betebeharrari erantzunez, entitate onuradunek informazioa izanen dute honako hauei buruz: gobernu-, administrazio- eta zuzendaritza-organoen osaketa; kargudunen zerrenda eta horien dedikazio-araubidea; kargu bakoitzeko entitateak eskuratutako diru-sari gordinak eta bestelako diru-sarrerak, kontzeptuak banakaturik, eta urteko kontuak –organo emailearen eskura egonen dira, eta organo horrek eskatzen ahalko ditu dirulaguntzaren onuradun suertatuz gero–.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea eta hedapena eman beharko dizkiote dirulaguntzaren xede diren jarduera edo proiektuen udal-finantzaketaren izaera publikoari. Horretarako:

- Komunikazio edo publizitate idatzi zein grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan) Udalaren logotipoa txertatu beharko da, eta honako legenda hau: "Laguntzailea: Iruñeko Udala". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da, gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da"
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 29.4 artikularekin bat: ☐ BAI ☒ EZ

Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☐ BAI ☒ EZ

Proiektua gauzatzean gerta daitezkeen aldaketa edo gertakari txikiak dirulaguntza kudeatzen duen alorrari jakinarazi beharko zaizkio eta jarraipen-txostenean jaso beharko dira.



G. ESKAERAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskaerak aurkezteko tokia:

Entitate bakoitzak eskaera bakarra aurkezten ahalko du, eta eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) argitara emandako "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" delako izapiderearen bidez.

2. Eskaerak aurkezteko epea: Eskaerak aurkezteko epea 2023ko uztailaren 30era bitartekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko eskabidez (aurkezpen telematikorako), interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizuna hartzen duen pertsonak sinaturik, betiere deialdi honen I. eranskinarekin bat. Eskaerarekin batera, deialdi honen G.4) apartatuak aipatzen dituen agiriak eta argibideak aurkeztuko dira. .

Ez da beharrezkoa izanen G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste edozein Administraziok egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalarai baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu deialdi honetan ezarritako betekizunak betetzen edo agiriak aurkezten, edo bestela, ez badio Iruñeko Udalarai baimenik ematen agiriok zer administraziok egin eta hartatik eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldez aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikuluekin aurreikusitakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako hauek frogatzen dituzten egiaztapenak: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta eskaera aurkeztzen den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela.

Ez da beharrezkoa izanen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu.

GGKE eskatzailearen ziurtagiriak:

- Entitatearen estatutuak.
- Ziurtagiria, egiaztatzeak Garapenaren aldeko Lankidetzako Agentzia Espainiarraren Garapenerako Gobernu Kanpoko Elkarteen Erregistroan izena emana duela.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- GGKE eskatzailearen Identifikazio Fiskaleko agiriaren kopia.
- Entitate eskatzailearen legezko ordezkariaren aipamena eta akreditazioa (nortasun agiri nazionala, pasaporte edo antzekoa)

b) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskina eredu hartuta, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2. artikularekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin izanen balitu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztapenak aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan jasotako datuak egiaztatzeko.

d) Deialdiak aurreikusten duenean eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen talderen bat izateko aukera –horiek publikoak zein pribatuak izaki–, eskaeran berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahalduz bakarria izendatu behar da, eta ahalorde asketsia eman behar zaio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non jakitera emanen baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribatu helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. eranskina). ☒ SÍ ☐ NO

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

Memoria V. eranskinean atxikitako ereduarekin bat aurkeztu beharko da (Proiektuak aurkezteko formularioa). Memoriak gain, laburpen-orri bat gehitu beharko da, honako alderdi hauek jasota: aukeratutako gaiak, proiektuaren testuinguru orokorra, aurreikusitako helburuak, egin beharreko jardueren deskribapena, zein talderi eta eragile parte-hartzailei dagoen zuzenduta, tokia eta aipamen labur bat entitate eskatzaileak garapenaren aldeko sentsibilizazio eta hezkuntzako esparruetan izan duen ibilbidea eta eskarmentua azalduta. Eranskinek proiektuari lotutako titulua eta zenbakia izan behar dute, eta ez entitateari lotutakoa.

g) Transferentzia bidez ordaintzeko eskabidea, bakarrik banku-entitateari dagokionez aldatetarik izan bada. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen IV. eranskina).

h) Agiri bat non egiaztatuko baitira azken bi urteetan zehar Iruñean garapenaren aldeko sentsibilizazio eta hezkuntzaren esparruan egindako jarduerak, egoitza edo helbidea Iruñean ez badago.

i) Aurrekontu banakatua, jarduketara garatzeko gastuekin eta diru-sarrerekin, bai eta entitateak paratzen dituen baliabideak eta beste erakunde edo entitate batzuei eskatu edota horiek emandako dirulaguntzak



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

ere aipatuta. Deialdi honen V. eranskinarekin bat (Proiektuak aurkezteko formularioa) egin beharko da.

j) Aurkeztutako proiektuarekin zuzeneko harremana izanen duten Iruñeko entitate eskatzaileen egoitzako langileen zerrenda, bertan adierazita bakoitzak proiektuan bete behar dituen eginkizunak (koordinazioa, lan teknikoak...) eta aritu behar duen denbora (lanaldi osoa edo partziala).

k) Sexu-delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Zentralaren ezezko ziurtagiria adin txikikoekin aurreikusitako jardueretan ohiko harremana izanen duten kontratatutako langile, boluntario, praktiketako langile edo edozein pertsonarendako.

l) Gauzatu beharreko proiektua zuzen ulertzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein agiri (grafikoak, teknikoak, finantzakoak eta bestelakoak).

m) B modalitaterako eskabideen kasuan: Jarraitutasun-proiektuetan, proiektua 2023ko ekainaren 30ean zein egoeratan dagoen azaltzen duen txostena aurkeztu beharko da.

Ez dira aurkeztu beharko atal honetako a) apartatuan zehaztutako agiriak, Iruñeko Udalaren eskuetan badaude eta horietan aldaketarik izan ez bada; horrelakoetan, haien ordeztu erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ahalko da, eta bertan adierazi noiz eta zein organotan edo bulegotan aurkeztu ziren edo, halakorik balitz, zeinek eman zituen edo zeinetan dauden jasota. Edozein kasutan, ezin izanen dira bost urte baino gehiago igarota izan dagokien prozedura amaitu zenetik

.

Telematikoki egiten ez diren izapideetarako, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatutakoak, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautoak diren kopiak.

Telematikoki egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo kautoak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekar ditzakeen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

115 PUNTU GEHIENEZ ERE

A. Proposatutako esku-hartzearen aurrekariak, testuingurua eta justifikazioa..... 15 puntu

- Esku-hartze sektorea identifikatzea. Testuingurua. (3 puntu bitarte)
- "Hegoalde-ikuspegia" txertatzea proiektua testuinguruan jartzean eta justifikatzean. (6 puntu bitarte)
- Proiektua zein testuingurutan garatu behar den identifikatzea. (3 puntu bitarte)
- Proposatutako esku-hartzearen funtsa. (3 puntu bitarte)

B. Esku-hartzearen kalitate teknikoak 60 puntu

- Gai, kolektibo hartzaile, helburu eta jardueren arteko koherentzia. (5 puntu bitarte)
- Espero diren helburu pedagogikoen eta emaitza zehatzen zehaztapena, hala berehalakoena nola iraunkorrena. (10 puntu bitarte)
 - Esku-hartzearen hiru urteen garapen-maila. (10 puntu bitarte)
- Jardueren aniztasuna eta zehaztapena. (5 puntu bitarte)
- Erabiliko diren metodologia zein materialak eta baliabideak egokitzea. (5 puntu bitarte)
- Kanpoko arrisku edo faktoreen azterketa. Horiek gutxitzen saiatzeko proposamenak. (5 puntu bitarte)
- Giza-baliabideen egokitasuna aztertzea (5 puntu bitarte)
- Proposamenaren bideragarritasuna eta jasagarritasuna (5 puntu bitarte)



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- Aurrekontuaren azterketa: egokitzapena deialdi honetan zedarritutako mugetara, aurrekontuaren banakatze- eta programazio-maila, gastu-partida bakoitzaren justifikazio-maila, kostuen eta onuren arteko erlazioa. (5 puntu bitarte)
- Jarraipena eta ebaluazioa: jarraipen- eta ebaluazio-sistemaren zehaztapen-maila, proposatutako adierazleen baliozkotasuna. Egiatzapen-iturriak. (5 puntu bitarte)

C. Esku-hartzeko proposamenean engaiatu diren entitateak 25 puntu

- Entitateen ezaugarriak eta proiektuarekiko duten konpromisoa. (5 puntu bitarte)
- Tokiko bazkideen ezaugarriak eta eta proiektuarekiko duten konpromisoa (5 puntu bitarte)
- Kolektiboen/entitateen aniztasun-maila: generoa, desgaitasuna, adinekoak... (5 puntu bitarte)
- Proiektuaren kudeaketak galdatzen duen langile boluntarioen mobilizazio-maila. (5 puntu bitarte)
- Hautatzeko irizpideak. (2 puntu bitarte)
- Neurri alternatiboak esku hartzen duen taldeari dagokionez (3 puntu bitarte)

D. Esku-hartzearen inguruko gaiak eta zeharkako ikuspegia 15 puntu

- Hegoalde-ikuspegia txertatzea eta Iparraldean engaiatzea. (3 puntu bitarte)
- Genero-ikuspegia / Generoa garapenean txertatzea. (3 puntu bitarte)
- Kultur identitateen errespetu-ikuspegia txertatzea. (3 puntu bitarte)
- Eskubideetan oinarritutako ikuspegia (GEOI) txertatzea. (3 puntu bitarte)
- Garapen Jasangarriaren ikuspegia txertatzea. (3 puntu bitarte)

* Proiektu batek gutxienez 80 puntu lortu behar ditu dirulaguntza jasotzeko.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeke, balorazio-batzorde bat eratuko da, jarraian aipatutako hauek osatua:

Batzordeburua:	Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko zinegotzi ordezkaria
Mahaikideak:	
1.	Komunitate Ekintzako, Garapenaren aldeko Lankidetzako eta Kiroleko Alorreko zuzendaria / Komunitate Ekintzako, Garapenaren aldeko Lankidetzako eta Kiroleko idazkari teknikoa (ordezkoa)
2.	Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programako teknikari bat
3.	Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programako teknikari bat
Idazkaria:	Komunitate Ekintzako, Garapenaren aldeko Lankidetzako eta Kiroleko Alorrera atxikitako Zuzenbidean lizentziaduna / Udaleko beste Zuzenbide-lizentziadun bat (ordezkoa).

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat eginen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) apartatuan aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat eginen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: Laguntzak ematea ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa



izanen da, gehienez ere.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsiz gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- tramitzatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
-

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsitzat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Iruñeko Udalaren webgunean.

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek diruz laguntzen ahalko dira:

a) Zuzeneko gastutzat joko dira proiektua gauzatzeari zuzenean lotutakoak eta finantzabide direnak proiektuaren helburuak lortzeko. Zuzeneko gastu hauek jasotzen ahal dute dirulaguntza:

1. Lokalen alokairua Iruñean jarduerak egiteko.

2. Materialak eta hornigaiak:

- Jarduerak egiteko beharrezkoak diren hainbat euskarritako materialak (bibliografikoak, ikus-entzunezkoa) eta material suntsikorra erostea.

- Ekipamendu tekniko edo informatikoak erosteko diru-kopurua ezin izanen da emandako dirulaguntzaren % 10etik gorakoa izan. Proiektua izanen da ekipamendu horien titularra hura gauzatu bitartean, eta behin proiektua gauzatuta, berariaz zehaztu beharko da nortzuk diren horien jabetzaren titularrak. Nolanahi ere, proiektuan zuzenean engaiatuta dauden entitateak izanen dira titulartasunaren jabeak.

- Jarduerak egiteko eta hedatzeko beharrezkoak diren erakusketa, material grafiko, ikus-entzunezko edo idatzizkoen diseinua eta ekoizpena. Itzulpen-gastuak.

3. Giza baliabideak:

- Proiektua egiteko behar diren giza baliabideak kontratatzea.

- Kontratazio-modalitateek islatu beharko dute kontratatutako langileak proiektuaren jardueretan lanean ari direla benetan, eta ez entitatearen bestelako jardueretan.



- Langileria-gastuak jardueraz jarduera banakatuta aurkeztu beharko dira, jarduera bakoitzaren arduraldi-orduen gutxi gorabeherako kalkulua adierazita, baita ordu bakoitzeko zenbatekoa eta guztikoa ere.

4. Bidaia, ostatu hartzeak eta dietak: Proiektuaren jardueraren batean parte hartzeko beharrezkoa bada norbait lekualdatzea, horrek eragindako gastuak bidaia, ostatu hartze eta mantenuaz bezainbatean. Langileen mugikortasunari dagozkion bidaia, ostatu hartze eta dieten ondoriozko gastuak guztizko dirulaguntzaren % 10eko mugarekin egozten ahal zaizkio finantzaketari, baldin eta zuzenean lotuta badaude jarduerak gauzatzeari.

5. Zerbitzu teknikoak eta profesionalak. Kanpoko zerbitzuen kontratazioa berariazko lanak egiteko. (Emandako dirulaguntzaren % 30 bitarte)

6. Eskieran aurkeztutako proiektua identifikatzeak eragindako gastuak. Kontzeptu honi egozten ahal zaizkion gastuak izanen dira honako hauetatik zuzenean eratorritakoak: diagnosiak, identifikazio-lantegiak, ikerketak, etab. (jarduerak eragindako langileria-gastuak barne). Ezin izanen dute jasotako aurrekontuaren % 20 gainditu.

b) Zeharkako gastutzat hartuko dira entitate eskatzailearen ohiko funtzionamenduari dagozkionak eta diruz lagundutako esku-hartzea gauzatzeko euskarri direnak, betiere, zentzuz dagokion partean, oro har onartuak diren kontabilitate-printzipioak eta -arauak kontuan hartuta:

1. Gastu hori esku-hartzea gauzatzen ari den aldiari egotzi behar zaio, eta entitate onuradunaren Iruñeko egoitzarekin zerikusia eduki. Deialdi honetatik kanpo daude Iruñean kokatuta ez dauden egoitzen gastuak.

2. Dirulaguntzari loturiko zeharkako gastuek (administrazio- eta kudeaketa-gastuak, Iruñean) ez dute inolaz ere jasotako dirulaguntzaren % 7 gaindituko.

c) Iruñeko Udalaren dirulaguntzak eragiten dituen finantza-etekinek dirulaguntzaren zenbatekoa handituko dute eta diruz lagundutako proiektuari aplikatuko zaizkio.

d) Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa 12.000 eurotik gorakoa denean – ekipamendu ondasunen horniduraren kasuan edo aholkularitzako zein laguntza teknikoko enpresen zerbitzuen kasuan –, entitate onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaile ezberdinei dena delako zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa bere gain hartu baino lehen.

Dirulaguntzaren xede diren gastuetan, kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) apartatuaren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

☒ BAI ☐ EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere dirulaguntzen xede izanen:

- Entitate eskatzailearen barne funtzionamenduak sortutako jarduerak (barne prestakuntzako jarduerak, aldiari buletinen edo entitatearen ohiko jardueren hedabideen argitalpenak, entitatearen bilerak edo barne topaketak eta abar), baldin eta proiektua egiteari ezin bazaizkio zuzenean egotzi.

- Garapenaren aldeko edo larrialdi humanitarioko proiektuetarako dirua biltzea helburu duten sentsibilizazio-jarduerak.

- Iparreko herrialdeetan egoitza duten pertsonen Hegoaldeko herrialdeetara egindako bidaiek eragindako gastuak.

2. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuak egiteko epea: Dirulaguntzen xede izaten ahal



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

diren gastuak egiteko epea 2023ko irailaren 1ean hasiko da, eta 2024ko abuztuaren 31n amaituko.

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoak: % 30

Entitate onuradunak azpikontratua egiten duela ulertuko da, hirugarrenekin ituna egiten badu, dirulaguntzaren xede den jarduerak osorik edo zati batean egin ditzaten. Dirulaguntzaren xede den jarduera berez egin ahal izateko, onuradunak egin behar dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik kanpo gelditzen da.

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunak diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xede den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: ☒ BAI ☐ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoak: proiektu osoaren % 10, gutxienez.

Entitate onuradunak proiektuko jarduera batzuk boluntarioen bidez gauzatzen baditu, eta horiek diru-ordainik jasotzen ez dutenez, gastu batzuk bere ekarpenari egozten ahalko dizkio, 1.700 €-ra bitarte, hala nola prestakuntzatik eratorritako gastuak, boluntarioen alde sinatutako istripu-aseguruen, gaixotasunen eta erantzukizun zibileko polizetatik eratorritakoak, bai eta sor daitezkeen beste gastu batzuk ere, betiere aurrekontuan aurreikusi badira.

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren salbuespen gisa, deialdi honetan dirulaguntza jasotzea bateraezina izanen da Iruñeko Udalak Garapenaren aldeko nazioarteko Lankidetzaren esparruan ematen dituen beste dirulaguntzekin, urte berean eta jarduera berarako baldin bada.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, dirulaguntza horien xede den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

- ☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarduerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.
- ☒ Konturako ordainketa:
- ☐ Ordainketa zatikatua:
 - ☒ Ordainketa aurreratua: Dirulaguntzaren % 100 aldez aurretik ordainduko zaio GGKE eskatzaileari, ordainketa bakarrean.
 - ☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketak bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

2. Bermeen eraketa:

- ☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa: Dirulaguntza eman aurretik ez da eskatuko bermerako banku-abalik, irabazi-asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzak izan eta Garapenaren aldeko Lankidetzarekin zerikusia duten jarduketak egin behar dituztelako; gainera, oinarri hauetan beraietan ezartzen dira dirulaguntzak kontrolatzeko eta justifikatzeko mekanismoak eta jasotako diru-kopuruak itzultzeko aukera.

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta dirulaguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

- ☒ Justifikazio-kontua:
- ☒ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).
1. Diruz lagundutako proiektua egitearen onuradun eta arduradun diren GGKEk G.1) apartatuan aipatutako tokietan aurkeztu beharko dituzte proiektuaren garapenaren txosten deskribatzailea eta finantzarioa. Txosten hori Justifikazio Txostenaren Formularioarekin bat (VI. eranskina) egin behar da, eta honako agiri hauek jasoko ditu:
- 1.1. "Txosten berri-emailea", aldi bakoitzari dagozkion jarduketak deskribatzen dituen.
- 1.2. "Finantza-txostena", jasotako dirulaguntzari dagokionez. Bertan honako hauek sartu beharko dira:
- a) Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda izenpetua eta zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda, onartutako aurrekontu osoarena, hau da, hala jasotako dirulaguntzari nola proiektuaren baterako finantzaketari dagokienez.
- b) Aurreko zerrenda hori egiaztatzeko, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu behar dira: fakturak, jaulkitzaileak behar bezala sinatutako ordainagiriak, are nominak ere, tributuak nahiz Gizarte Segurantzako kuotak eta balio frogagarria duten bestelako dokumentuak, merkataritzako trafiko juridikoan baliozkotasuna edo administrazio-eraginkortasuna baldin badute. Modu korrelatiboan ordenaturik aurkeztuko dira, aurreko zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera.
- Justifikazio-agiriekin jatorrizkoak izan beharko dute.
 - Fakturak indarra duten legeen arabera jaulkitako dira, haietan zehazturik faktura egin duen enpresaren izena eta IFK, fakturaren jaulkitze-data, zenbatekoa eta fakturatu diren objektuen edo kontzeptuen xehekapena, aplikatutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga, jaulkitzailearen sinadura eta zigilua eta ordaintzeko era. Inongo kasutan ez dira onartuko ordainagiri hutsak edota kutzako tiketak.
 - PFEZaren atxikipena eta ordainketa justifikatu beharko da, autonomoen kasuan.



c) Faktura edo beste ordainketa-agiri bakoitza egindako ordainketa egiaztatzen duen agiriaz lagunduta aurkeztu beharko da (transferentziak, hartze-agiriak, etab.).

d) Dirulaguntzaren xede izan diren administrazio- eta kudeaketa-gastuak justifikatzeko dagozkion ziurtagiriak aurkeztuko dira. Gastu horiek ez dira % 7 baino gehiago izanen eta entitate eskatzailearen lokalen mantentze-gastuak, bulego materiala eta bestelako gastu orokorrak izanen dira. Entitateak Iruñean duen egoitzari egotzitako gastuak onartuko dira bakarrik.

e) Dirulaguntzaren justifikazioa egitean ez badira diruz lagundutako gastu guztien eta gastu horien ordainagirien kopia kautoak aurkeztzen edo justifikazioa modu elektronikoan egiten bada, organo kudeatzaileak entitate onuradunari eskatuko dio jatorrizkoak aurkez diezazkiola, 10 egun balioduneko epean eta aurrez aurre, egiaztatzeko kopia soilean aurkeztutako agirien benetakotasuna; organo kudeatzaileak administrazio-espeditentean jaso beharko du egiaztapena egin duela eta aurkeztutako kopiak bat datozela jatorrizkoekin.

Jatorrizko agiriak erakutsi eta desadostasunen bat atzemanaz gero, eta hura zuzentzeko errekerimendua egin eta gero desadostasunak bere horretan badirau, dirulaguntzaren bidezkoa den kopurua itzultzeko galdatuko da, kopuru horri gehituko zaizkiolarik dagozkion interesak, eta, behar izatera, legez ezar litezkeen zehapenak ere ezarriko dira.

f) Hartzailearen egiaztageria, Udalarenaz besteko dirulaguntzen zenbatekoa eta jatorria azalduta, baldin eta horiek proiektuaren xede den jarduerarik finantzatu badute, bai eta xede berarako jasotako beste edozein diru-sarrera edo baliabiderenak ere.

g) Udalaren dirulaguntzaz baliatuta egin diren material iraunkor guztien kopia (argitalpenak, kartelak, liburuxkak, ikus-entzunezkoak, etab.), bai eta diruz lagundutako proiektua gauzatu dela egiaztatzen duen edozein agiri idatzizko zein grafiko ere (argazkiak, ebaluazioak, prentsa-dosierrak, etab.).

